

HONDARRIBIAK JAIOTZARI

Urteko aro seinatueta herri kulturaren oroitzapenezko dena, herriaren ondare denez, komeni zaigu irau araztea, mendez mende tokian tokiko balioak gordeaz. Irrati eta telebistaren bidez eredu bakarretara garamatzate, han eta hemen kanta berberak hedatuz. Gure esatera zaharrak dioenek: beti bat, beti bat, txori txarraren kanta.

Beraz, txoritxarraren kanta gerta ez dadin, itzuli gaitezen herri bakoitza bere era zaharra berpiztera eta berrituz etortzekotan, betor era jatorretan oinarritutakotik. Horrela, Eguberrietan, bikain lagunduko genuke Lizardiren gogoia:

**soina zahar, berri gogoia;
azal horizta, muin betirakoa.**

Gure folkloreaken aberasgarri, nire usitez, hori suspertzea komeni zaigu eta horren nahiak narea Hondarribiak Jaiotza nola aurkezten zuen adieraztera, aspaldi jasotako zati bidez. Nork daki horrela jokatzuz, geroan zitu hobean jasotzen ez ote diguten lagunduko?

Nils M. Holmer, Lund Unibertsitateko irakaslea, duela 30 urte hizkuntzaren ikerketaz hemen egin zituen bilketa haietan, bertan kantatzen ziren bi billantzikoren bertsoak jaso zituen Medianborda baserriko Lino Ugartegandik, **El idioma vasco hablado** (1964) liburuan datozenez. Haren bilketa hizkuntzalaritzakoa zenez, ez zuen doinurik jaso, baina hara hor bi bertso Jesusen Jaiotza aipatzen dutenak:

**Bata don Gaspar,
Bestea Meltxor,
Horiek denak.
Bazekiten eternidadea nola zan:
Hala behar zan, hala izan zan.
Jesus Maria, behar du izan.**

**Herrian zenbait galai gazte,
Kantuz gera atera
Atseginaz poz haundi batez
Gaur zuek ematera
Hobetoago kantatuko degu.
Gaur baino askoz ere
Jaungoikok gabon digula
Datorren urteraino.**

Argi dago bigarrena behintzat errondan kantatzekoa dela. Azkuek mende honen haseran jaso zuenean kontarizko eta errondakoa nahasirik aurkitu zituen, eta, gainera, zati batean Bizkaiko kutsuz. Itsas-bidezko harremanak berez ematen dute hori.

Hondarribiko Higinio Salaberrik kontatua da, eta ikus dezakegunez, bigarrenengo bertsoa hain hedatua den "Hator, hator!..." delakoaren zati bat da eta hirugarrena neronek Eibarkotzat bildu nuenarena. Baina, hara hor doinu ta guzti **Cancionero popular vasco**-ren 1142. orrialdean datorren bezala:

Urriaren hiruan
ginaden atera,
egualdi ona zelako,
gure bi ajera,
Santanderren barenna
azkar pasa gera,
bainan bazan zeregin
handikan aurrera.

Gabon gabon pasa dezagun
Aita ta Amaren aldean,
ekusiko degu aita farrez,
ama ere bai txit kontentuz tuluntun.
Bai eta neuk ere zelango tragua!
lehendanik esanez Jesus;
arriba yarriba, altzate la pata
goazen Espainiara Frantzia lagata.

JUAN SAN MARTIN

URRIAREN HIRUAN

Andante mosso

80. 

Ur - i - a - ren i - ru - an gi -



na - den a - te - ra, e - gualdion a - za - la - ko, gu -



re bi - a - je - ra, San - tanderren ba - ren - a - az -



kar pa - sa ge - ra, bai - nan ba - zan zer e - gin

Più mosso



an - dik an aurr - e - ra. Ga - bon ga -



bon pa - sade - za - gun Aita ta A - maren alde an, e -

Allegro molto *Allegretto*



ku - si - ko de - gu ai - tafar - ez,



a - ma ere bai txit kon - ten - tuz tuluntun.

Allegro molto



Bai e - ta neuk e - re ze - lan - go tra - gu - a!

Meno mosso



len - dan - ik e - san - ez Je - sus:

Allegro molto



a - rri bay a - rri - ba, ál - tza - te la pa - ta



goaz - en Espai - ni - a - ra Frantzi - a la - ga - ta.